

Direction de la communication,
du dialogue citoyen et de l'attractivité territoriale
05 59 46 60 40
communication@bayonne.fr

2025eko urtarrilaren 23a

PRENTSA OHARRA
GUILLAUME FAUVEAU
« Fragments de réalité, Errealitateari so »
2025eko rtarrilaren 24tik martxoaren 23ra



©Guillaume Fauveau

2025. urtea hasteko, Baiona Hiriak Guillaume Fauveau argazki-kazetariaren erakusketari harrera egiten dio Didam-en. Erakusketa berri hau Hiriak Didam-en 2025eko agazkiaren eta prentsa marrazkiaren inguruan egin nahi duen desmartxa batean kokatzen da, 2015eko Pariseko atentatuen oroitzapenen kariatara, bi erakusketen inguruko begirada gurutzatua, Guillaume Fauveau negu honetan eta Plantu-Réza udan.

Guillaume Fauveau-k Euskal Herriko aktualitateari eta gai garaikideei buruzko begirada arretatsu, konprometitu eta zintzo hau du, erretratuari nahiz paisaiari eta atmosferako argazkilaritzari eskainitako ikuspegi sentikor batekin konbinatua. Erakusketa hau, 70 argazkik baino gehiago osatua, argazkilaria animatzen duten istorio eta gizatasun zati horiek dekubritzeko gomita da, baita irudien bidez munduarekin hitz egiteko gomita ere. Kultur egitarau oparo batez lagundurik Didam-en, 2025eko urtarrilaren 24tik, ostirala, martxoaren 23ra ikusteko.

Argazki-kazetaria 2019az geroztik, Guillaume Fauveau-k identitate bisual bat eraiki du erreportajearen, erretratuen eta unearen esplorazio sentikor baten elkargunean. Bere lanak etengabeko bilaketa batean atzematen ditu bere sustraiak: istorioak kontatzea, aurpegiak azaleratzea, bestela ihes egin lezakeen une baten ñabardurak atzementa. Obrako egoeren errealitateari arreta sakona eskaintzen dio, moldaketa ahalmen handia eta eta bere autore begiradaren sentsibilitatea.

Erakusketa pertsonal hau aukera paregabea da bere argazki-unibertsoaren ikuspegi zabalago bat lau serieren bidez partekatzeko. Bi seriek tokiko prentsarentzat (Mediabask, Berria) argazkilaria gisa egin duen ibilbidea erakusten duten erreportaje eta erretratuen intentsitatean eta emozioan murgilduko gaituzte. Hemen, Ipar Euskal Herriko aktualitatea begien aurretik iragaten da. Hirugarren batek, Libération egunkarirako egindakoa, Pausa, Baionako etorkinen harrera zentzuko errealitatearen zati bat erakutsiko digu. Bizi ibilbideei, itxaronaldiari eta esperantzari buruzko lekukotasun intimo eta humanista da.

Azkenik, ordu urdinari eskainitako laugarren serieak paisaiak misterio eta poesiaren artean eraldatzen dituen argi berezi eta iheskor hori aztertzen du. Zinemazale amorratua, Guillaume-ek bere eragin batzuk partekatuko dizkigu harentzat bidaiaren eta estetika zinematografikoaren sinonimo diren «txakur eta otsoen artean» egindako irudi sorta honetan.

Guillaume Fauveau

1982an Baionan sortua eta 2004an Ekonomia Masterrean lizentziatua, Guillaume Fauveau-k argazkilaritzari ekin zion autodidakta irmo gisa, Réunion ugartera eta gero Parisera joanez. 2010etik goiti, Pierre Grenet (Astoria Studio), Jacques Péré (Studio Furax) eta Sébastien Cottreau (Lucky Studio) argazkilarien laguntzailea izan zen Bordalen.

Profesional horiekin harremanetan izanki, esperientzia handiko argazkilaria bilakatzen da, eta 2012an Euskal kostara itzulirik, bere helburuak ozeanora bideratzen ditu, bereziki haurtzarotik praktikatzen duen surfera. Laster, 2017an De Biarritz Yearbook prentsa espezializatutako liburuan argitaratzen hasten da, eta gero elkarte bat sortzen du Robin Kegel shaper kaliforniarrekin, Gato Heroi markaren komunikazioari eskainitako irudiak ekoizteko. Bere argazkiak Miarritzeko Helder Supply Store eta Pariseko (2.barrutia) Glasscove-en erakutsiak dira.



Argazki-kazetaritzaren zale amorratua, 2019tik goiti Ipar Euskal Herriko egunkarietarako (Mediabask, Gara, Berria) prentsan egiten du lan eta gizartea, politika eta kultura bezalako gaiei buruzko gaurkotasuna estaltzen du. Erregulariki ere prentsa nazionalarekin (Libération, ELLE, We Demain, Les Inrockuptibles) kolaboratzen du.

Miarritzen G7aren goi-bileran eta Hendaian egin den kontra-gailurrean lehen lerroan, besteak beste, erretreten erreforma proiektuan izan diren manifestazio sozialak, Bakearen Artisauen (Bake Bidea) esku-hartzeak, Covid-19aren epidemia estali ditu.

Aldi berean, aktiboki parte hartu du argazkilaria militante gisa Bizi! mugimendu altermundialistaren ekintzetan.

2021az geroztik musikan ere lan egiten du. Atabal-ekin (Miarritze) kolaboratu du, USOPOP labelarekin (Sara), Johanne Buff-en Shorebreak estudioarekin (Tarnoze) partaidetzan dago da eta artistentzat erretratu, argazki promozioa eta album azalak egiten ditu.

«Niretzat, argazkigintzaren indarra gizatasun sentimendu bat adierazteko duen gaitasunean datza» - James Nachtwey.

ERAKUSKETAREN INGURUAN – Bitartekaritza programa

URTARRILAREN 24A OSTIRALA > INAUGURAZIOA

18:00 : erakusketaren estreina Guillaume Fauveau-ren presentziarekin.

OTSAILAREN 10A ASTELEHENA > IDAZKETA TAILERRA

09:30-12:30 : Encre(s) aldizkariko Laurent Platero-k animaturik.

Izena eman behar da, leku kopuru mugatua. Ordaindu beharra 12€, 10€ senior, 8€ Déclic txartela.

OTSAILAREN 14A OSTIRALA > «PRENTSAREN EGOKITASUNA ADIMEN ARTIFIZIALAREN GARAIAN» MINTZALDIA

Les Mycéliades festibalaren baitan

18:00-19:00 : Guillaume Fauveau eta Carole Suhas, AFPko kazetari korrespontsalak eta Euskal Herriko Prentsa Klubeko idazkariak animaturik. Doakoa. Izena eman behar da, leku kopuru mugatua.

OTSAILAREN 15A LARUNBATA > KOMENTATUTAKO BISITA

13:00-14:00 : Guillaume Fauveau eta Didam-eko bitartekariak animaturik. Doakoa. Izena eman behar da, leku kopuru mugatua.

OTSAILAREN 19A ASTEAZKENA > FAMILIA TAILERRA! «Zanpantzarren goaitatzean»

10:30-11:30 : euskal zirtzilen kapela tradizionalaren paperezko ekoizpen tailerra. Doakoa. Izena eman behar da, leku kopuru mugatua. 7 urtetatik goiti.

MARTXOAREN 5A ASTEAZKENA > FAMILIAN! «Nire Olentzero»

Aniztasunaren astearen kariatara

Baionako mediatekarekin partaidetzan

10:30 et 11:15 : «Nire Olentzero» ipuin modernoaren irakurketa, Gilles Rivière-ek migrazioei buruz idatzi eta irakurria, Mikel Alkoz-ek ilustratua. Lehen irakurketa bat euskaraz proposatua izanen da eta ondotik frantsesez.

5-10 urtekoentzat. Doakoa. Izena eman behar da, leku kopuru mugatua.

MARTXOAREN 15A LARUNBATA > KOMENTATUTAKO BISITA

13:00-14:00 : Guillaume Fauveau eta Didam-eko bitartekariak animaturik. Doakoa. Izena eman behar da, leku kopuru mugatua.

MARTXOAREN 15A LARUNBATA > TOPAKETA – ÉMILIE DROUINAUD, Argazki-kazetaria

15:00-16:00 : argazki-kazetari lanbideari buruzko elkartrukea Emilie Drouinaud, Sud-ouest-eko argazki-kazetariarekin.

Doakoa. Izena eman behar da, leku kopuru mugatua.

ESKOLAK, ESKOLAZ KANPOKOAK ETA TALDEAK

Bisita komentatuak frantsesez eta Didam-eko bitartekaritzak proposatutako eta bultzatutako proiektu espezifikoak.

BA OTE ZENEKIEN?

Baiona gainetako eremu soziokulturala: Didam-en 2024-2025eko denboraldia argazki-kazetaritzaren inguruan dela eta, udaberrian Didam eta ESCM aren proiektu bateratu bat eskainiko da, argazki-erreportajearen eta prentsa marrazkiaren gaiari buruzkoa. Proiektu hau hainbat atalatan deklinatua izanen da: Guillaume Fauveau-rekin topaketa bat, argazki-kazetaritza eta prentsa marrazketa hastapen bat. Uztaillean, itzultze erakusketa bat aurkeztua izanen da Didam-eko patioan.

• **Kultura-Abentura:** Hezkuntza Nazionaleko zerbitzuek koordinatua, hezkuntza artistiko eta kulturalerako proiektu honek 12 ikastetxe batzen ditu etxeko gaiaren inguruan. Ikasleek gai horri buruzko bisita berezi bat ukanen dute Baionako kultur egitura anitzetan (Mediateka, Artxiboak, Didam, Euskal museoa, VAH zerbitzua). 2025eko ekainean, gelan landuak diren obren itzulketa bat iraganen da.

Didam - Praktikoan

Erakusketa hauek guztiak doakoak dira eta animazio programa bat (gazteendako, publiko zabalarendako...) eta kultura bitartekotza bat ukanen dute.

Ordutegia:

Urritik ekainera: asteartetik igandera, besta egunak barne (maiatzaren 1a, abenduaren 25a eta urtarrilaren 1a salbu) 13:00etatik 18:30era.

DIDAM, arte garaikideko eremua/Baiona Hiria - Lesseps kaia 6/ 05 59 46 63 43 / didam.bayonne.fr

Baiona Hiriko prentsa harremanak - 05 59 46 63 01 - presse@bayonne.fr